

ARABERA

Iparaldeko eta Nafarroako literatura tradizioetako hitz hau hainbat eratan agertu da testuetan: *araura*, *arauera*, *arauiala*, *arabera*, etab. Dena dela, XVIII. mendean gero erdarazko “*según / selon*”-en kide bezala, *arabera*, *arauera*, e.a. aldaera horien guztien artean, *arabera* da literaturan erabili den forma nagusia.

Beraz, euskara baturako erabakitzen den forma bakarra *arabera* da esapide gisa erabiltzeko.

* * *

Bibliografia:

K. MITXELENA, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *arabera* eta *arau* sarrerak.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)